

# IRAGARKIA

## 52. ALDIZKARIA - 2023ko martxoaren 14a

### 2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

#### 2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK ETXAURI

### Tasak arautzen dituen udal ordenantza. Behin betiko onespena

Etxauriko Udalak, 2022ko abenduaren 28an egin osoko bilkuran, erabaki zuen hasiera batez onestea tasak arautzen dituen udal ordenantza. Iragarkia 2023ko 6. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara, urtarrilaren 10ean.

Jendaurrean egoteko epea iraganik inork alegaziorik aurkeztu gabe, ordenantza behin betiko onesten da, eta osorik argitaratzeko agintzen, behar diren ondorioak izan ditzan; hori dena, jarraikiz uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluari (Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea).

Etxaurin, 2023ko martxoaren 2an.–Alkatea, Idoia Aritzala Etxarren.

### TASAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA

1. artikulua. Izaera eta oinarriak.

Tasak arautzen dituen udal ordenantza zuzeneko zerga bat da, eta haren helburua da honako eginkizun hauengatik kobratzea: txosten jakin batzuk egitea, kontsultei emandako erantzunak eta erantsitako taulan jasotako beste kasu batzuk.

Azken xedapen bakarra.–Ordenantza hau indarrean jarriko da eta ondorio juridiko osoak sortuko ditu behin betiko onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoan, eta indarrean segituko du harik eta berariaz aldatzen edo indargabetzen den arte.

Ikus taula osoa

Txostenak eta kontsultei emaniko erantzunak	
Kontsultei egindako txostenak	25,00 euro

<b>Ordainagiri edo bestelako agirien bikoiztuak, jatorrizkoa galdu edo desagertzeagatik</b>	
Agiri bakoitza	5,00 euro
<b>Lizentziak ematea arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeagatik, eta tasak Etxaurin animaliak bildu eta harrapatzeagatik eta Udalaren egoitzetan zaintzeagatik</b>	
Lizentzia bakoitzeko	20,00 euro
Animaliak bildu edo harrapatzea. Animalia bakoitzeko	20,00 euro
Udal lokaletan egoteagatik, egun eta animalia bakoitzeko	Zerbitzuagatik kobratutakoaren arabera

Iragarkiaren kodea: L2303641